

Juan Kruz Igerabide



# Begi bat kokotean

Elena Odriozola



**EDICI'NES  
M'DERNAS  
EL EMBUD'**

- 1 Nire etxea
- 2 Taberna-denda
- 3 Eskola
- 4 Udaletxea
- 5 Plaza
- 6 Frontoia
- 7 Eliza
- 8 Apaizaren etxea
- 9 Medikuaren etxea
- 10 Zizurkil
- 11 Iturria
- 12 Karobizuloa
- 13 Hilerria
- 14 Baratzeak
- 15 Mendia / Basoa
- 16 Erreka
- 17 Herriko aldapa
- 18 Bidea
- 19 Zubia
- 20 Zentral elektrikoa
- 21 Trenbidea
- 22 N1 Errepide nagusia
- 23 Oria ibaia
- 24 Villabona





## Bost urterekin alargun

Umetan, atzera begira egoten nintzen maiz. «Bergia aterako zaik kokotean», mehatxatzen ninduen apaizak, elizan atzera begira ikusten ninduelako. Nik, lagunak ikusi nahi, edo ama, eskuak batuta belauniko, debozio handiarekin errezatzen, begiak itxita, Ama Birjina bat bezain polit. Begira-begira egoten nintzaion.

Emakumeen belaunulkiak banakakoak ziren, gizonezkoen aldeko aulki luzeak baino askoz politagoak. Horregatik begiratzen nuen atze-

ra. Horregatik, eta Mirentxu ikus-tearren, nire andregaiia baitzen hiru urte bete nituenetik. Berak ez zekien, baina nik bai.

Atzera begiratzearen begiratzeaz, begi bat irten zitzaidan kokotean; hala uste dut. Harrezkero, ez neukan burua jiratu beharrik atzean zer gertatzen ari zen antzemateko. Gainera, kokoteko begiak iragana oroitzeko ere balio zidan. Oraindik ere erabiltzen dut horretarako, gertatu ziren gauzak gogoratzeko.

Kokoteko begiarekin erraz ibiltzen nintzen atzeraka neure triziklo gorrian, bazterra jo gabe; zurezkoa eta burdinazkoa zen nire trizikloa. Herriko ume guztiak harrিতuta uzten nituen. Mirentxu eskulekuan esertzen zitzaidan, txori bat bezain arin. Eta nik atzeraka eragiten nien pedalei, eta Mirentxuk barre egiten zuen. Eta ni zorionsu nintzen berak barre egiten zuenean.

—Bazterra joko dugula! —egiten zuen oi-hu.

Baina ez zen jaisten. Fidatu egiten zen nitaz.

Nire herritik aldapa maldatsu bat jaisten da Oria ibairaino. Aski entrenatua sentitu nintzenean, trizikloan atzeraka abiatu nintzen



aldapa behera. Bihurguneak oso ondo hartzen ohitua nengoen, baina ez nuen kalkulatu abiadura handian zailagoa dela errebuelta ondo trazatzea. Azkenean, atzeraka danba jo nuen harrizko horma bat. Orain ez dago horma hura. Behar-bada neuk botako nuen kokotea-rekin. Ez naiz oroitzen.

Kontua da etzanda esnatu nintzela eliz atariko harrizko pretilean. Don Andres apaiza begira-begira neukan, arnasestuka. Zutitu eta berriro triziklorantz nindoala ikusi zuenean, hasperen egin zuen.

—Eskerrak. Ez duk ezer izan.

Zimitorioan buelta pare bat egin, eta plazarantz jo nuen. Apaizak, kokotean irten zitzaidan koskorra begira, hala bota zidan atzetik:

—Esaten nian. Azkenean, begi bat irten zaik kokotean.



Mirentxuri ez zitzaion inolako begirik irten kokotean, baina, egun batean, eskolan, lepondoa gogor-gogor geratu zitzaion; ezin mugitu. Maistra lasterka ikusi genuen, hankak arrastaka, zahar samarra baitzen; nire aitona-amonen taberna-dendara zuzendu zituen pau-

soak, han zegoen-eta herriko telefonoa. Maistrak dei bat egingo zuen, antza; handik pixka batera, taxi bat igo zen herrira, abiadan, tutua joz. Citroen beltz bat zen, ogizalearen berdina. Maistra Mirentxurekin sartu zen autoan, eta ziztuan urrundu ziren, leihatilatik musuzapi zuri bat aterata, seinaleak eginez.

Mutilon ikasgelan bildu ziren neskek egun hartan, estu-estu, maisuaren zaintzapean: txikienak aurrean, handienak atzean. Inori errieta egin beharrik ez zuen izan. Nik isilik iraun nuen besteekin batera, begiak kartillan josita, ezer irakurri gabe. Mirentxu baizik ez nuen buruan. Maisuak mendian gora bidali zituen bi mutil, handietakoak, Mirentxuren gurasoentzako abisu batekin; mendiko baserri batean bizi ziren, ordubetera oinez.

Amak ekarri ohi zuen Mirentxu eskolara, zaldi gainean zangalatrau, esertzeko zelarik gabe. Haren ama oso arina zen: jauzi batez jaisten zen zalditik eta jauzi batez igotzen, zurdei helduta. Hori egitean, soinekoaren azpian galtzamotoz zuri-zuriak ikusten zitzaizkion, izter erdirainokoak. Ez genuen barrerik egiten ikustean, nesken kuleroak edo mutilen galtzontziloak ikusten genituenean bezala. Haren jauzi


bizkorrek errespetua sartzen ziguten. Amazona ausart bat ematen zuen. Ez omen zion inori beldurrik. Ziotenez, behin gizon bati aurre egin zion mendian, hark eraso egin nahi izan ziolako, eta hankartean ostiko bat jota zerraldo bota omen zuen.

Bi mutil handiak itzuli baino askoz lehenago, Mirentxuren ama zaldiz urrundik pasatzen ikusi genuen, bizi-bizi, Zizurkilgo kontsultategirantz. Handik denbora batera, Mirentxuren aita igaro zen mando baten gainean, zaldi bakarra baitzeukaten, eta mando bat, eta asto bat.

Mirentxu ez zen itzuli. Maistra bai, begiak gorri-gorri, burumakur.

Hurrengo egunean izan zen Mirentxuren hileta. Kutxatxo txuri-txuri batean zetzan. Estalkia jaso zuten, eta begira egon ginen. Mutikook negar egin genuen; neskek, gehiago. Inork ez zuen ukitu. Nik bakarrik. Musu bat eman nion ahotxo hotzean, haren nobioa nintzelako. Musu eman ondoren, nire ezpainenatik kantu bat igo zen zerurantz, sentimendu handiarekin, otoitz bat bezalakoa, ahotsa oso-oso goraturik, Mirentxuri bidan laguntzeko: «*Eskaintzera bihotzez loretxo eder bana*». Jendeak are negar gehiago egin zuen.

Hilerrian eman zioten lur, zulo txiki-txiki batean. Ume bakoitzak zokor bat hartu genuen, eta kutxatxoaren gainera erortzen utzi. Gero, ehorzleak, palakada gutxi batzuekin kutxa estali, eta gaina berdindu zuen. Lore sortak eta koroak ipini genituen hilobi txikiaren gainean. Nik trizikloa ekarri nahi izan nuen, Mirentxu zeruan ibil zedin, baina aitak debekatu egin zidan. Zeharo haserretu nintzen; inoiz ez nion barkatu erabat. Adiskidetu nintzen berriro, baina bihotzean zulotxo batekin.



Amak, nire atsekabeaz oharturik, soineko txuri-txuri bat josi zuen. Hurrengo egunean, sakristauak ireki zigun hilerriko atea, Erromanek, eta baratzeko jorraiarekin lurra altxatzen utzi zidan. Ertz urreztatua zeukan soinekoa kutxaren gainean ipini, eta lurrez estali nuen. Hala, Mirentxu polit-polit egongo zen. Berriro gainean pilatu genituen lore sortak eta koroak, eta hilerritik irten ginen, Erroman sakristauari eskerrak eman ondoren. Gizon altua zen Erroman, sudur luze zorrotzekoa, eta burugainean ilerik gabeko biribil bat zeukan, apaiz egiteko gutxi falta zaien diakonoek bezalakoa. Auzoko Danielek esaten zuen bizarra egitean hango ilea ere afeitatu egiten zuela, biribilegia zela berezkoa izateko. Gure etxekoneko Oskarrek, berriz, zioen berezkoa zela, zeruak emandako dohain bat, seinale bat, eta horregatik egin zela sakristau. Ez ziren ados jartzen. Eta ez ziren ausartzen Erromani galdetzerara, oso gizon isila baitzen, hitz gutxikoa eta serio-serioa.

Halaxe geratu nintzen alargun bost urterekin. Eta kokotean begi batekin. Horregatik begira dezaket denboran atzera, eta argi eta garbi ikusi gertatutakoa. Hala esango nuke behintzat.



## Korua

Txikienok koruan ez genuen kantatzen, baina, don Andres apaizak, Mirentxuren ehorzketan atera nuen aingeru-ahotsa entzunda, koruan parte hartzera gonbidatu ninduen, tiple bakarlagisa. Astean behin, solfeoko klasea ematen zuen elizan, harmonioaz lagundurik. Eguberrietako kontzertuan hartu nuen parte lehen aldiz. *Mesias sarritan* kantatu genuenean, soloa oktaba bat gorago hartu nuen, eta nire ahotsak sabaia zeharkatu zuen Mirentxurenganaino iristeko. Kokoteko begiaz ikusi nuen Remigio organista, malkoa zeriola. Gero Sorondo baxuarekin duo bat egin nuen, hura behe-behetik, ni hodeien gainetik.



Herri Irratikoek jakin zuten bazela herrian ume bat kantaria, eskolaurrekoa gainera, eta amonaren telefonogunera deitu zuten, irrartian kantatzera gonbidatzeko. Une hartan, aita eta biok geunden, sarrri joaten baikinena taberna-denda hartara. Gure bigarren etxea zen hura, baina ez nintzen luze egoten han, beti lanean aritzen ziren eta; nahiago izaten nuen beste umeekin jolastera irten.

—Horixe besterik ez genuen behar —bota zuen aitak, ezpainak okertuta.

Ez zitzaion gustatzen nabarmentzea. Amonak kontatu zidanez, gerratik bueltan, mutil isila bihurtu zen; lan egin eta familia zaindu. Beraz, ez zion grazia handirik egin gonbidapenak.

Baina amari bai. Aita, halakoetan, ez zen eztabaidan hasten. Biak konforme ez zeudenean, buelta hartu eta bere zereginetara urruntzen zen. Halaxe egin zuen, amak esan zuelarik:

—Umeari ilusioa egiten dio. Eta niri ere bai.

Aita oiloei jana ematera joan zen, eta gero bere kamioiari koipea sartze-

ra, azpian zeuzkan zulo txo batzuetatik. Lurrean zaku baten gainean ahoz gora etzanda egiten zuen hori; hankak soilik ikusten zitzaizkion, bere bota handi olanazko haietan sartuak. Oherako baino ez zituen erantzen. Uste dut lotsa ematen ziola oinak erakustek; azazkalen orde, haragiz inguraturiko azazkal-ziri gogor batzuk zeuzkan, hain gogorak non metala mozteko zerrarekin ebaki behar izaten baitzitu. Hozkia ematen zidan hartan ari zenean. Seguru asko gerran geratu zitzaizkion azazkalak hala, baina inoiz ez nion galdetu.

Don Andresek eta Remigiok kantu herrikoi batzuk erakutsi zizkidaten, elizakoak baino ez bainekizkien. Astean bi egunetan entseiatzen nuen. Prestatuta nengoela iritzi ziotenean, Herri Irratira deitu zuten hitzordua jartzeko.

Baina ni, bezperan, gaixotu. Berebiziko sukarra neukan. Bat-batean, hanka perlesiak jota geratu zitzaidan, mugitu ezinik. Aita korrika irten zen, eskailerak binaka jaitsiz, edo hirunaka, bere bota zazpi le-goakoekin. Kamioia martxan jartzen entzun nuen, eta kolpetik azeleratu zuen, inoiz egiten ez zuena, oso ondo tratatzen baitzuen

bere metalezko astotxo; halaxe deitzen zion.

Amak zapi bustiak ipini zizkidan bekokian, eta izeba Rosario eta izeba Mikela agertu ziten, arnases-tuka, «ai, ama; ai, ama» xuxurlatuz. Ez nuen ulertzen zer gertatzen ari zen. Ez zen ba sukarra neukan lehen aldia. Gero, Mirentxuz oroitu nintzen. Eta pentsatu nuen agian berarekin elkartuko nintzela. Horregatik zeukan gure amak Birjina Doloretakoaren aurpegi hura, horregatik zeuden bi izebak estutasunak jota.

Kamioiaren motorra entzun nuen berriro, eta frenazo bat, zakar; ez zirudien aita zetorrenik gidari. Segituan entzun ziren hanka-hotsak zurezko eskaileretan gora. Lau hanka, bi botadun, bi zapatadun. Atetik don Jose medikua agertu zen, bere betaurreko biribilekin eta sudur txorrotzarekin; zer ote zeneukan usaindu egiten zizula ematen zuen. Gerturatu, eta kopeta ukitu zidan. Ez zuen keinu larriarik egin, baina begietan tximista bat bezalako antzeman nion. Estaltzen ninduten maindirea eta burusia alde batera bota, eta hanka igurtzi eta igurtzi hasi zitzaidan.

—Alkohola —agindu zuen.

Amak alkohola atera zuen medikuaren maletatxotik eta eman egin zion. Don Josek behin eta berriz igurtzi zidan hanka, gelditu gabe. Alkandorako pare bat botoi askatu zituen. Kopetako izerdia xukatu zuen. Eta nire hanka igurtzen jarraitu zuen. Begi-niniak gero eta txikiago zeuzkan, desagertzeko zorian.

Bat-batean, oineko behatz potoloa mugitu zen. Don Joseren begi-niniak kolpetik handitu ziren betaurrekoen atzean. Hasperen eginenez lasaitu zen.

—Ez da larria.

Gurasoek eta izebek ere hasperen egin zuten. Don Josek ezarria haztatu zidan. Berebiziko anginak neuzkan. Min eman zidan ukitzean.

—Anginengatik da —bota zuen—. Bihotzera jo izan balio, akabo. Bihar bertan, ospitalera.

Injekzio bat jarri zidan. Hurrengo egunean, ez neukan sukarririk. Hobe to nengo.

—Ondo nago. Ez daukat ospitalera joan beharrik —esan nuen.

Baina kamioian eraman ninduten. Ospitalean, ausartarena egin nuen. Gela batera eraman ninduten; eserleku batean eserarazi, eta eskumu-

turrak eta orkatilak lotu zizkidaten. Askatzeko ahaleginak egin nituen. Argiak itzali zituzten, eta mamu moduko bat agertu zen, bata zurriarekin. Kopetan txapa biribil bat zeraman, bonbillatxo batekin.

—Ireki ahoa.

Bai, to. Ez nion obeditu mamuari. Erizain atsegin batek burutik heldu zidan maitekiro, mugi ez nendin. Nik ahoa estutu nuen gogor. Mamua, orduan, irekiarazten saiatu zen, baina ezin. Hamar bat minutu-edo eutsi nion, gogor.

—Ez daukat egun guztia —esan zuen mamuak, pipertuta.

Ama eserita zegoen, aurrez aurre, bizkarra paretaren kontra. Aita, berriz, kanpoan geratua zen. Amaren itzala zutitzen ikusi nuen; erizainaren lekua hartu zuen, niri burua igurtziz eta mesedez ahoa zabaltzeko xuxurlatuz. Ahoa bigundu nuen, eta mamuak aprobe txatu egin zuen ahoan burdina bat ipintzeko; eta ezin itxi. Sartu bisturia, eta ri-rau, bi pilotatxo erauzi zizkidan, haragizkoak. Astakirten hark metalezko platertxo batean erakutsi zizkidan.

—Begira zer kendu dizkiagun.

Erizainari pasatu zion platertxo; hark argia piztu zuen, eta medikuak,



berriz, kopetan zeraman hontz itxurako linternatxo kendu zuen. Irribarre gaizto bat bota zidan. Hala iruditu niri. Erizainak eskuoinak askatu zizkidanean, medikuaren kontra jo nuen, haren hanka-zainei ostikoka. Amak eutsi zidan. Berriz men egin nion.

—Tontakeriarik ez —esan zuen medikuak—. Odolusteko arriskua du. Jarri zerbait hotza eztarrian.

Mutu egon nintzen egun batzuetan. Hitz egiteko gai izan nintzenean, nire tiple-ahotsa desagertua zen. Eta nire kantatzeko gogoia ere bai. Ez dakit zer moztu zidan astakirten hark; anginak bakarrik ez, hori ziur.

Herri Irratitik deitu zuten berriz. Alferrrik, ordea.

# AURKIBIDEA



Bost urterekin alargun	7
Korua	10
Josten eta trikotatzen	14
Ipuinak	18
Pitas	23
Tranpadura	27
Pilotan jo eta su	32
Itotakoak	37
Koskabiloak	42
Kamioia	47
Irunera bidaia	52
Beste amona	57



Harrikada bat...	61
Inuzenteen eguna	65
Min egiten	70
Kamiseta	74
Aio, amona zaharra...	80
San Juan de Dios...	85
Pikondoa	90
Istripua	95
Inazio zintzoa	100
Seminaria	104
Abaraska	110
Oroitzapenak azalean...	112





9 788412 620634